

ONDARROAKO UDALARI

Egun badira oraindik oso gaixorik eta kartzelan jarraitzen duten presoak. Egoera honek beren egoera fisikoa eta bere senitartekoen ezinegona okertu eta areagotzen du, eta pertsona gisa eta preso gisa zor zaizkien eskubideak ukatzen ditu.

Gaixo diren preso hauek, sufritzen dituzten gaixotasunei behar bezalako jarraipena egitea bateraezina da espetxean egotearekin, honako arrazoi hauengatik: espetxeak ezin duelako eskaini tratamendu bereziturik; gaixotasun hauek arreta zorrotza behar dutelako; kartzelan egonik, balizko larrialdi baten aurrean erantzunik emateko gaitasun ezagatik.

Eusko Legebiltzarrak berak ere, berauen askatasuna behin baino gehiagotan eskatu du. Etxeratze hori ematen ez den bitartean, Euskal Herriko kartzelaren batean mantendu beharko litzateke.

Ikusirik, Ibon Iparragirre euskal presoak, bestelako auzibideengatik Euskal Herrira ekarri dutela, aukera paregabea izango litzateke bertan gelditzea. Horrela bere gaixotasunak behar bezalako arreta izango duelako.

Hau guztia kontuan harturik, Ondarroako Udalak honako hau adierazten du:

- 1.- Udal honek bere kezka adierazi nahi du Ibon Iparragirre euskal preso gaixoak pairatzen duen egoera larriaren aurrean.
- 2.- Udal honek Ibon Iparragirre euskal presoak berriro ez sakabanatzea eskatzen du.
- 3.- Udal honek Ibon Iparragirre presoak Osakidetzan edo bere gertuko eta konfiantzazko mediku batek bere osasun egoera hartatu dezala eskatzen du.
- 4.- Udal honek guzti hau exijitzeko, dei egiten du datorren larunbatean, eguerdiko 12etan, "etxean nahi dugu" lelopean egingo den kontzentrazio ixilera.